



Arartekoaren Ebazpena, azaroaren 15ekoa. Horren bidez, gomendioa egiten zaio Abanto-Zierbenako Udalari udal erroldan inskriba dezan Santa Juliana auzunean bizi den familia bat.

Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekoarengana jo du Abanto-Zierbenako Udalak ez duelako inskribatu haren familia udal erroldan, 2007tik hona behin eta berriz eskaera egin badu ere. Gurasoek eta lau seme-alaba adingabeok osatuta dago familia.

Ijito arrazako familia da eta Abanto-Zierbena udalerriko Santa Juliana auzunean bizi da.

Santa Juliana auzuneari buruzko kexa ugari jaso du erakunde honek hirigintzaren aldetik duen egoera eskasagatik. Eusko Jaurlaritzak auzune horren hirigintza berrantolamendurako hitzarmena onesteko zain dago udala. 2010eko uztailaren 29an, Abanto-Zierbenako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren zatizko aldaketa onetsi zen eta, horren arabera, lurzoru urbanizagarria da Santa Juliana auzuneko lurra, baina egon dagoen eraikuntza ordenamendutik kanpora dago. Arartekoak ebazpena egin du: [2010ko irailaren 20ko Arartekoaren ebazpena](#), auzokide talde batek aurkezturiko erreklamazioari buruzkoa. Erreklamazio horretan, Abanto-Zierbenako Santa Juliana auzuneak gizarte eta hirigintzaren aldetik duen egoera eskasa adierazi zuten auzokideek.¹

2. Arartekoak familia udal erroldan inskribatu ez izanari buruzko informazioa eskatu zion Udalari, eta aurretik zenbait ohar bidali zizkion. Geroago emango ditugu ohar horiek, behin eta berriz ez errepikatzeko.

Udalak erantzun zuen 2007ko urrian idazki bat bidali zitzaizela, erroldan alta ematea ezinezkoa zela jakinarazteko, zeren eta erroldatzea baimentzen zuen pertsona ez baitzen titularra Hiri Katastroaren arabera, eta gainera, ez zegoen erroldatuta.

Erroldan inskribatzeko eginiko eskaerari zegokion etxebizitzaren titularrak beste pertsona batzuk zirela gehitu zuen, baita honako hau ere: *"no cumplen con los requisitos para efectuar el alta en el Padrón Municipal de Habitantes de este Municipio de Abanto-Zierbena ya que no tienen autorización del titular de la vivienda"*.

¹ Erakunde honek ebazpena betetzearen inguruko jarraipena egin du. Eginiko jarraipenerako jarduketan artean, auzunean izan ginen eta bilera egin genuen 2011ko urriaren 9an; bertan jorratu zen kexa-espedita hau ere.



Halaber, kexa aurkeztu zuenari 2007an bidalitako erantzuna erantsi zuen udalak bere erantzunean.

Geroago, berriz ere jo genuen Abanto-Zierbenako Udalera, udal erroldan inskribatzearen arloan aplikatu beharreko lege araubidea bete behar dela berriro gogorarazteko.

Hona hemen udalaren erantzuna:

“Como Administración Local debemos hacer defensa de los intereses de todos nuestros vecinos y vecinas por igual y, en este caso, en particular, la prudencia nos obliga a esperar la resolución de la gestión que llevan a cabo los titulares de la vivienda”.

Hori guztia ikusita, eta kexaren planteamendua eta emandako informazioa eta oharak aztertuta, egoki iritzi diogu honako hauek zuri bidaltzeari:

Gogoetak

1. Familia 2007tik hona ari da Santa Juliana auzunean erroldatu nahian. Seme-alabek udalerriko Casal Ikastetxean ikasten dute.

Familia Santa Juliana auzunean bizi da. Abanto-Zierbenako Udalak ukatu egin dio erroldan inskribatzea, besteak beste etxebizitzaren jabeak beste pertsona batzuk direla ageri baita katastroan.

Ezberdina dira Katastro Erregistroaren, Jabetza Erregistroaren eta Errolda Erregistroaren funtzioak.

Ondasunen erregistroa da Katastroaren Erregistroa, eta ondasunen balorazioa ahalbidetzen du zerga-ordainketari eta kartografiaren kontrolari begira. Katastroak informazio grafikoa eta alfanumerikoa ematen du, titulu pribatuan edo publikoan sartzeko dena. Hori dela-eta, lagungarria da salerosketaren xedeko higiezinaren definizio zehatza emateko. **Hortaz, bere eginkizuna ez da ondasun baten titularitatea edo pertsona bat udalerrian bizi dela egiaztatzea.**

Jabetzaren Erregistroaren egiaztapenen xedea, ordea, ondasunen jabetza egiaztatzea da, baina baliteke inskribatuta ez dauden jabe partikularrenak diren ondasun higiezinak egotea, kasu honetan bezala.





Udal Erroldaren Erregistroa administrazio erregistroa da, eta udalerrian bizi diren pertsona guztien helbidea eta inguruabarrak jasota uzteko eginkizuna betetzen du, TAOLren 16. artikulua zera dio: *“udal errolda administrazio erregistro bat da eta hor daude jasota udaleko herritarrak. Bertako datuek frogatzen dute udalerrian bizi direla eta bertan dutela ohiko bizilekua. Datu horiekin egiten diren egiaztapenak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira ondorio administratibo guztietarako”*.

Udal erroldan inskribatzeari buruzko ziurtagiria udalerrian bizi izatea frogatzeko agiria da, hots, soilik udalerrian bizi izatea egiaztatzeko balio du eta, beraz, ez du balio etxebizitzaren jabetza egiaztatzeke. Dokumentu hori zerbitzu publiko baten eskabidean exijitzen denez gero, beharrezkoa da herri administrazioekiko harremanetan.

2. Kexaren sustatzaileak adierazi duenez, 18.040,00€-ko zenbatekoan erosi zuen etxebizitza, eta erosketa agerrarazitako agiria erantsi du. Udalak etxebizitzaren beste jabe batzuk direla eta jabe horiek erroldan inskribatzeko baimenik eman ez dutela alegatu du.

Beraz, etxebizitzaren titularitatearen inguruko gatazka da, bide judizialek erabaki beharrezkoa. Kasu honetan aztertu beharrezkoa haxe da: horrelako gatazka egotea legezko zioa den familia bat udal erroldan inskribatzea galarazteko.

Familiak hainbat aldiz eskatu dio udalari udal erroldan inskriba dezan. Lege araubideak (zehazkiago Tokiko Araubidearen Oinarrien Legea, Populazio eta Lurralde Mugapenari buruzko Araudia eta Estatistika Erakunde Nazionalaren ebazpenak) bereizi egiten ditu erroldan inskribatzea eta higiezina hartzea legezkoa edo legez kontrakoa izatea. **Arautegi horren arabera, inskribatzeak ez du zerikusirik etxebizitza hartzea legezkoa edo legez kontrakoa izateari buruzko eztabaida juridikoekin.**

Biztanleen eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduaren 59.2 artikuluan xedatuta dagoen ahalmenak ez du esan nahi okupazio tituluaren legezkontasuna aztertzeke ahalmena duenik, baizik eta **nortasuna eta benetako bizilekua egiaztatzea** du helburu. *“El Ayuntamiento podrá comprobar la veracidad de los datos consignados por los vecinos, exigiendo al efecto la presentación del documento nacional de identidad o tarjeta de residencia, el libro de familia, el título que legitime la ocupación de la vivienda u otros documentos análogos”*.



Pertsonak erroldan inskribatzea eskatzeko aurkeztu ditzakeen agirien zerrenda ez da itxia, bestelako "antzeko agiriak" aurkeztu baitaitezke; are gehiago, udalerriko toki batean bizitzea egiaztatzen duen udal txostenak balio dezake erroldan inskribatzeko. PLMAren 59.2 artikulua ahalmena ematen dio udalari herritarrek inskribatzean adierazten dituen datuak bere identifikazioan ezarritakoekin bat datozela egiaztatzeko, edo bestela esaten duen etxean bizi dela, **baina bere xedea ez da aurkezten dituen agirien legezotasunari buruzko judizioa ematea**. Nolanahi ere, baldin eta Udalak irregulartasun edo egiazkoa ez den daturen baten inguruko zantzurik badu, jarduketa egokiak hasi behar ditu, baina ezin erabil dezake erroldan inskribatzeko bere ahalmena erroldari ez dagokion xede bat lortzeko.

Oso argigarria da udalei udal erroldak eguneratzeko jarraibide teknikoak ematen dizkien 1997ko uztailaren 4ko Ebazpena udal erroldaren izaera eta xedea ulertzeko. Ebazpen hori batera eman zuten Estatistikako Erakunde Nazionalako presidentek eta Lurralde Lankidetzarako zuzendari nagusiak (BOE 2007/07/25).

Arautegi hori aplikatu behar dute eskumena Estatistikako Erakunde Nazionalarekin partekatzen duten udalek: *"balizko akatsak konpontzeko eta datuen bikoiztasunik ez gertatzeko"*, TAOLren 17. art.

Erroldatzea eskatzen duten pertsonak inskribatzeko, PLMAren 57. artikuluan ezarritako datuak bildu behar ditu udalak eta, ikusi dugunez, egiazkoak diren egiaztatu behar ditu, PLMAren 59.2. art.

1997ko uztailaren 4ko Ebazpenaren 3. artikuluan argitzen da Udalak PLMAren 59.2. artikuluan ezarritako ahalmenaren norainokoa. Bertan agertzen denez, erroldaren kudeatzaileak, erroldan inskribatzeko datuen benetakotasuna egiaztatzeko ahalmena erabiltzen duenean, ez du baliozkotuko ondoren irregulartzat edo legez kontraktatzat jo daitekeen jarduketarik, horren berri eman baino:

"El Padrón es el registro administrativo que pretende reflejar el domicilio donde residen las personas que viven en España. Su objetivo, es por tanto, dejar constancia de un hecho, por lo que, en principio, no debe resultar distorsionado ni por los derechos que puedan o no corresponde al vecino para residir en ese domicilio, ni por los derechos que podrían derivarse de la expedición de una certificación acreditativa de aquel hecho."





En consonancia con este objetivo. La norma fundamental que debe presidir la actuación municipal de gestión del Padrón es la contenida en el artículo 17.2 de la Ley de Bases de Régimen Local: Realizarán las actuaciones y operaciones necesarias para mantener actualizados sus Padrones de modo que los datos contenidos en éstos concuerden con la realidad.

Por ello, las facultades atribuidas al Ayuntamiento en el artículo 59.2 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales para exigir la aportación de documentos a sus vecinos tiene como única finalidad comprobar la veracidad de los datos consignados, como textualmente señala el propio artículo.

En consecuencia, tan pronto como el gestor municipal adquiera la convicción de que los datos que constan en la inscripción padronal se ajustan a la realidad, deja de estar facultado para pedir al vecino ulteriores justificaciones que acrediten aquel hecho.

*Y, en concreto, la posibilidad de que el Ayuntamiento solicite del vecino el título que legitime la ocupación de la vivienda (art. 59.2 del Reglamento), **no atribuye a las administraciones locales ninguna competencia para juzgar cuestiones de propiedad, de arrendamiento urbanos o, en general, de naturaleza jurídico-privada, sino que tiene por única finalidad servir de elemento de prueba para acreditar que, efectivamente, el vecino habita en el domicilio que ha indicado**².*

Este título puede ser una escritura de propiedad o un contrato de arrendamiento, pero también un contrato de suministro de un servicio de la vivienda (agua, gas, electricidad, teléfono, etc.) o incluso, no existir en absoluto (caso de la ocupación sin título de una propiedad ajena, sea pública o privada. En este último supuesto, el gestor municipal debería comprobar por otros medios (Informe de la Policía Local, inspección del propio servicio, etc.) que realmente el vecino habita en ese domicilio, y en caso afirmativo inscribirlo en el Padrón, con completa independencia de que el legítimo propietario ejercite sus derechos ante las autoridades o Tribunales competentes, que nunca serán los gestores del Padrón.

La facultad municipal de comprobación de los documentos que acrediten otros datos del empadronamiento (número del documento nacional de identidad, titulación escolar, etc.) deberá ejercitarse conforme al mismo

² Lodiz guk nabarmendu dugu



criterio de exigir su aportación en la medida en que sea necesaria para adquirir la convicción de la veracidad de los datos consignados”.

3. Aplikatu beharreko lege araubidean ezarritakoaren arabera, betebeharra da udal erroldan inskribatzea, hots, udalerrri batean bizi diren pertsonen nahitaez inskribatu behar dute udal erroldan. TAOLren 15. artikulua dioenez: *“Españian bizi den pertsona oro behartuta dago ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan izena ematera. Hainbat udalerritan bizi denak urtean denbora gehien ematen duen horretan eman behar izango du izena” eta aurrerago adierazten du: “eta hor daude jasota udaleko herritarrak”.* PLMAren 54. artikuluan ezarritakoaren arabera, erroldan inskribatu beharra dago nahitaez, eta hauxe dakar 55. artikulua: *“udalerriko auzokideak dira bertan bizi ohi badira, 54.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta udal erroldan inskribatuta badaude”.*

Udala behartuta dago udalerrian bizi diren pertsonen erroldan izena ematera. TAOLren 17.2 artikulua arabera: *“Udalek erroldak eguneratuta izateko behar den guztia egin behar dute, bertan jasotako datuak errealitatearekin bat etor daitezen”.*

Populazioaren eta Lurralde Mugapenaren Arautegian, udalak burutu beharreko jarduketak eta ahalmenak bildu dira, bere erroldak eguneratuta izateko arduraduna den aldetik, datu horiek errealitatearekin bat etor daitezen. **Hala, INEren ordezkotzat betearazpena aurreikusi da, PLMAren 62.2. artikuluan, eginkizun hori burutu ezean, edo ofiziozko alta edo baja, PLMAren 71. artikuluan eta hurrengoetan, edo laginketa eta kontrol lanak egitea erroldaren benetako egoera egiaztatzeko zenbait zonaldetan, PLMAren 77. art. Egiaztatu betebehar eta ahalmen horren xedea da errolda eta errealitatea bat etortzea eta errealitateari egokituriko populazioaren zifrak edukitzea³.**

4. Kexaren sustatzaileak askotan aurkeztu du udal erroldan inskribatzeko eskaera. Udalak 2007ko urrian baizik ez zion erantzuna eman. Eskatzailearen jatorrizko udalerriko helbidera igorri zuen erantzunaren idazkia; ez zen eskaeran agerrarazitako helbidea. Ez dugu jakinarazpena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 59 artikuluan ezarritakoaren arabera egin izanaren berri ere. Gainera, erantzunaren edukia ez da administrazio ebazpenetarako ezarritakoa, aurreko Legearen 89. art.

³ Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatu zuen urtarrilaren 10eko 4/1996 Legeak udal erroldarako arau berriak ezarri zituen, eta horren bidez, informatizazioa normalizatu zen. Sistema berriaren ezaugarri nagusia da udal errolden etengabeko kudeaketa informatizatua lortzea, errolda etengabe eguneratzea errazteko. Hala, errealitateari egokituriko populazioaren zifrak lortu ahal dira laburrean.



Geroago, berriz ere egin zuen eskaera 2010eko maiatzaren 20an eta irailaren 17an, baina udalak ez zion idatzizko erantzunik eman.

Eskaerari erantzunik ez ematea ez dator bat administrazio onaren printzipioekin; izan ere, Administrazioak berriaz eman behar die erantzuna pertsonen eskaerei zentzuzko epe baten barruan.

5. Erroldan inskribatzeak pertsonen eskubideei eragiten die; izan ere, auzokide bihurtzen da erroldatu ondoren. Gainera, exijitu egiten da eskubide zibiletarako (politikan parte hartzea) nahiz eskubide sozialetarako: osasun-txartela eskuratzea, gizarte laguntzak, babes ofizialeko etxebizitzarako eskaerak, etab.

Auzitegi Gorenak, 2005eko irailaren 15eko epaian, udal erroldan inskribatzearen garrantzia aipatzen du, eta auzitegiaren irizpidearekin bat etorri, a quo *"...no puede procederse a dar de baja sin más a los vecinos en el Padrón municipal, pues ello afecta al ejercicio en la práctica de derechos fundamentales, como son el de participación electoral y la libertad de residencia que consagra el art. 19 de la Constitución"*⁵

Estatistikako Erakunde Nazionalako presidentek eta Lurralde Lankidetzarako zuzendari nagusiak batera emandako 1997ko apirilaren 1eko Ebazpenak, udalei udal erroldaren kudeaketari eta berrikuspenari buruzko jarraibideak ematen dizkienak (BOE 2007/4/11), udalek udal erroldan gertatzen diren aldaketak izapidetzean jarraitu beharreko prozedura arautzen du.

Haren xedeaz hitz egitean, nahi den tokian bizitzeko oinarrizko eskubidearekin duen lotura esan nahi da, *"a fin de armonizar, las obligaciones de los ciudadanos de inscribirse en el padrón del municipio en que residen habitualmente y comunicar los cambios de residencia que les afecten, con el derecho a fijar libremente la residencia que reconoce la Constitución, así como coordinar las actuaciones entre los Ayuntamientos afectados"*.

⁴ Horrek berekin dakar hauteslea eta hautagaia izatea hauteskunderi buruzko legerian ezarritakoarekin bat etorritik, baita honako hauek ere: udal kudeaketan parte hartzea legeetan xedatu denaren arabera, udal zerbitzuak erabiltzea hala nola gizarte etxeak, liburutegiak kirol instalazioetan sartzea, udal eskumenetarako laguntza ematea prestazio ekonomikoen eta pertsonalen bidez, informazioa jasotzea aurretik zentzuzko eskaera eginda eta espediente guztien arloko udal eskabideak eta udal dokumentazioa helaraztea udal administrazioari Espainiako Konstituzioaren 105. artikulua arabera, herri galdeketa eskatzea Legean xedatu denaren arabera, zerbitzu publikoa ematea eta, hala denean, berrezartzea baldin eta udalari datxekion nahitaezko udal eskumena bada, Tokiko Araubidearen Oinarri buruzko Legea.

⁵ Auzitegi Gorenen Epaia ere, 2001eko martxoaren 21ekoa.



Oinarrizko eskubideen erabilera ukitzeaz gain, funtsezko betekizuna da zerbitzu eta prestazio publikoen eskaeran. Eskubideak erabiltzeko eskaerak arautzen dituen arategiak eroldan inskribatuta egoteari buruzko ziurtagiria (edo erroldagiria) ezarri du aurkeztu beharreko agirien artean, esate baterako osasunerako, doako justiziarako, beketarako eta gizarte babeserako eskubideei dagozkienak.

Kasu honetan, ijitoen familia bada, nazioarteko, Europako eta nazioko erakundeek aitorturiko diskriminazio eta ezberdintasuna jasaten dituen arrazakoa. Izan ere, gizarte bazterketa larrian dagoenez, arrisku handiagoan uzten dituzte eroldan inskribatzeko izaten ari diren eragozpenek.

Hirigintzaren aldetik birsortzeko aurreikuspena duen auzune baten bizi da familia. Birsorkuntzarako behar hori eskakizun bilakatu da denboraren joan-etorriarekin, eta ez da narriadura handiagoa galarazteko neurririk abiarazi.

Auzuneak hirigintzaren aldetik duen narriadurarekin batera, beste arazo batzuk daude hala nola bertako biztanle asko gizarte bazterketa larrian egotea eta kopuru horrek gora egitea. Hirigintzaren inguruko narriadura prozesu horretan, zenbait pertsonak alde egiten du bizi hobeago bat lortuko dutelakoan. Beste batzuk, ordea, bertara doaz, eskura ditzaketen etxebizitza bakarrak baitira. Lehen aipaturikoaren Arartekoaren Ebazpenean, besteak beste, auzunean lehentasunez eta osotasunean aurrera egin beharra aipatzen genuen, bertan jasaten ari den gizarte eta hirigintza narriadurari konponbidea emateko.

Ijitoak hirigintza narriadura handiko auzuneetan bizi ohi dira; izan ere, eskura ditzaketen etxebizitza bakarrak izaten dira batzuetan.

Ijitoen etxebizitza askoren ezaugarri nagusia da bizigarritasun baldintzarik eskasekoak edo txar-txarrekoak izatea, hirigintza eta oinarrizko azpiegiturarako ekipamendu urrietako guneetan kokaturik daudela-eta, baita gizarte bazterketan eta langabezian dauden edo oso lan eskasak dituzten pertsonen bilgunea izatea ere. Hainbat gizarte arazo metatzen direnez, ezkutuko gizarte gatazka izaten da halako auzuneetan, eta tirabira maila ezberdinak agertu ohi dira.

Ijitoen bizitokien baldintzen inguruan eginiko txostenek erakusten dutenez, diskriminazioa jasaten dute etxebizitza eskuratzean eta oso etxebizitza eskasetan bizi dira, oinarrizko azpiegiturarik gabe eta euren etxebizitzak legeztatzeko edo horien kalitatea hobetzeko aukerarik gabe. Haiek bizi diren estandarrak ez dira herritar gehienek. Nazioarteko eta Europako erakundeak

⁷ [Arartekoaren 2010eko irailaren 20ko Ebazpena, auzuneko auzokide talde batek aurkezturiko erreklamazioari buruzkoa](#)

⁸ Besteak beste, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Agentziaren txostena: *“Condiciones de vivienda de los Roma y los Travellers en la Unión Europea, Informe comparativo Octubre de 2009”* Europako zenbait estatutako etxebizitzaren baldintzei buruzko txostena: [Standards Do Not Apply: Inadequate Housing in Romani Communities, Europa Roma Rights Centre](#)



(Nazio Batuak eta Europako Kontseiluak) maiz aipatu dute argudiotzat ijitoek eta nomadek etxebizitza izateko duten eskubidea askotan urratzen dela.

Ondorioa

Abanto-Zierbenako Udalak ez du familia hori erroldan inskribatu, Santa Juliana auzunean bizi dela jakin arren. Inskribatzeko eskaerei buruzko idazkiei ere ez zaie erantzunik eman, behin izan ezik, baina eskaeran agertzen ez zen beste helbide batera igorri zen erantzuna.

Santa Juliana auzuneak gizartearen eta hirigintzaren aldetik duen egoerak birsorkuntza prozesua eskatzen du, auzune horretan bizi diren pertsonen bizi-baldintzak hobetzea ahalbidetuko duena. Erakunde hau prozesuaren jarraipena egiten ari da, arestian aipaturiko ebazpenaren arabera.

Prozesu honetan ezin itzuri dakioko udalerrian bizi diren pertsonen erroldan nahitaez inskribatu beharri.

Erroldan inskribatzeak ez du ondoriorik etxebizitza baten jabetza-tituluaren legezkotasunean, baizik eta beste eskubide batzuekin dago lotuta hala nola nahi den tokian bizitzeko askatasunerako, politikan parte hartzeko edo gizarte eskubideak eta gizarte babesak eskuratzeko eskubideekin. Eskubide hori ukatzeak garrantzi ikaragarri handia du.

Kasu honetan, gainera, gizarte bazterketan dagoen ijitoen familia bat da, seme-alaba adingabeak dituen, eta beraz, euren arriskua areagotzen duten ondorioak dakartza eskubideok erabiltzeko mugak jartzeak.

Hortaz, gogoratu behar dira, udalak erroldan inskribatzearen arloko lege araubidea betetzeko duen betebeharrak gain, adingabeak babesteko betebeharrak, diskriminatuak ez izateko eskubidea eta ijitoak sustatzeko hartutako konpromisoak bete beharra; izan ere, ijitoak gizarteratzeak herri administrazio guztien agendan egon behar du.

⁹ Batzordeak Europako Parlamentuari, Europako Ekonomi eta Gizarte Batzordeari eta Eskualdeen Batzordeari eginiko 2011ko apirilaren 5eko Jakinarazpena, ijitoak 2020ra arte gizarteratzeko nazio estrategien Europako eremuari buruzkoa COM(2011) 173 final
Batzordeak Europako Parlamentuari, Europako Ekonomi eta Gizarte Batzordeari eta Eskualdeen Batzordeari eginiko, 2010eko apirilaren 14koa Jakinarazpena. Ijitoen herria gizartean eta ekonomia sartzea. COM (2010)133



Horregatik guztiagatik, erakunde hau sortu eta arautu duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera

50/2011 GOMENDIOA, abenduaren 15ekoa, Abanto-Zierbenako Udalari egina

Familia hori udal erroldan inskribatzeko eskaera onar dezala.

